



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek Gizarte Larrialdietarako Laguntza eskari guztiak bermatzeko eskatu deusie Eusko Jaurlaritzari

Bilbon, 2013ko irailaren 25ean.

Bizkaiko Batzar Nagusiek arauz besteko proposamen bi onartu ditue gaur goizean, bat Bizkaiko Talde Popularrarena (PP) eta bestea EH Bildurena. Proposamen horreetan eskaerea egiten jako Eusko Jaurlaritzari, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL-AES) jagokenez dagoan eskaerari erantzun ahal izateko beharrezkoak diran aurrekontu kopuruak bideratu daizan aurton. Koalitzino abertzalearen proposamenak, ganera, 2014ko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan, horretarako “behar bestekoa” izango dan partidea segurtatzea eskatzen dau. PP-k aurkeztutako ekimenak PSE-EE eta EH Bildu taldeen laguntzea jaso dau, eta koalitzino abertzaleak aurkeztutakoak, barriz, PSE-EE-ren aldeko botoa eta popularren abstentzinoa. Euzko Abertzaleak taldea (EAJ-PNV) abstenidu egin da bozketa bietan.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen helburua, ohiko gastuei aurre egiteko bestelako baliabiderik ez daukien pertsonen laguntzea da, holan gizarte bazterketa egoerak saihestu ahal izateko. Lakuako Jaurlaritzak aurton horretara bideratu dituan 17,3 milioi euroak –2012ko kopuru berbera, aurrekontuen luzapena dala eta– “ez dira nahikoak” gaur egungo abagune ekonomikoa kontuan izanda. Egoera hori dala eta, udal askok gastau ditue dagoaneko hasiera batean laguntza horreetarako aurreikusitako baliabide guztiak, eta ezinezkoa jake eskaera barriari erantzutea, PP, EH Bildu eta PSE taldeetako ordezkariak Gizarte Ekintzako Batzordearen aurrean salatu dabenez.

Alderdi Popularrak, ekainean aurkeztu eban ekimenagaz jarraitzea erabagi dau, bere ustez Eusko Jaurlaritzak ez dauelako oraindino laguntza horreek handitzeari buruzko erantzun “argirik” emon. “Asmo onez betetako adierazpena baino ez dago”, esan dau Eduardo Andrés batzordeko kideak. PSE-k deitoratu egin dau Lakuako Jaurlaritzak, EUDEL-ek laguntza horreek handitzeko egindako proposamena onartu ez izana. Kontuan izan behar da “Udal askok urte osorako partida guztiak agortu dituela”. EH Bilduk eskaerea egin deutso Gasteizko Gobernuari, jarrera hori aztertu daian eta behar horreei aurre egin ahal izateko baliabide ekonomiko barik geratu diran udalerrien egoera konpontzeko bidea emon daian. Talde horrek adierazo dauenez, beharrezkoa balitz, Eusko Jaurlaritzak zorduntzeko aukerea aztertu beharko leuke, “errepideak eregiteko egiten dauen moduan”, adierazo dau Amaia Agirresarobe batzordeko kideak.

EAJ-PNV-k proposamen bietan erabagi dauen abstentzinoa justifikau dau, gaur egun Eusko Jaurlaritzak eskari gehiago ezin dauela erantzun esanez, ez dagoalako partidak handitzeko diru “estrarik”. Jon Larrea batzordeko kide jeltzaleak ez dau egoera gogorrean dagozan pertsonak “bertan behera ixten dirala” pentsatzerik gura, beste mota batzuetako laguntzak dagozalako, Diru-sarrerren Berme Errenta (DBE-RGI), eta etxebizitzarako Prestazino osagarria, adibidez, eta partida horreek “handitu daitezke, eskubide subjektiboa diralako”, GLL-AES laguntzakaz gertatzen ez dan moduan. Talde jeltzalearen eretxiz, garrantzitsuena, laguntza bi horreen bitartez “arriskuan dagozan pertsonen errentea bermatuta dagoala da”, baldintzak betetan dituen eskari “guztiei” emon behar jakelako erantzuna.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

FAMILIAKO HARREREA SUSTATZEKO HITZARMENA

Beste alde batetik, Gizarte Ekintzako Batzordeak aho batez berretsi dau Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarako hitzarmena, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen artean adin txikikoei familietan egin beharreko harreraren sustapenerako eta sentsibilizaziorako kanpaina zabaltzeko. Pilar Ardanzak, Gizarte Ekintzako diputaduak, emon dituen datuen arabera, helburua kanpaina hori foru administrazioaren beste ekimen batzuek azaldu da, Lurraldean harrerako 30 familia barri lortzeko. Gaur egun, Bizkaian, 307 adin txikiko hartzen dituen 262 familia dagoz.

Bizkaiko ikastetxe publikoetako eta kontzertuetako ikasleei zuzendutako marrazki eta kontakizun lehiaketak, ikasleak lan egiteko eta “familiako harreraren errealitatea familia barruko alkarbizitzarako modu legez erakusteko” aukera emongo dau eta, “ondorioz, baita ikasleen familiak sentsibilizetako aukera be, horren beharra daukien umeei laguntzea emoteko”, azaldu dau Gizarte Ekintzako diputaduak batzordean.

Aldundiko arduradunak, talde sozialistaren galderei erantzunez, enpresa barriak sortzeko eta gizarte egitasmoetan dagozan idea barrizailleak bultzatzeko Gizarte Ekintzailatza eta Barrikuntza programari buruzko informazioa be emon dau. Programa horrek 825.000 euroko aurrekontua dauka. Datozan egunetan itxiko da eskaintzak jasotzeko epea, baina orain arte sailak 18 eskari jaso ditu, Ardanzak adierazo dauenez.

Beste alde batetik, EH Bildu taldeak egindako galderei erantzunez, Aldundiko arduradunak, bere sailak azkeneko urteetan aurrera eroandako programakaz eta egitasmoakaz erlazionatutako beste datu batzuk emon ditu. Holan, adierazo dauenez, Aldundiak milioi bat euro baino gehiago bideratuko ditu aurton atzerriko adin txikikoak gizarteratzeko programetara. Emon dauen beste datu batek erakusten dauenez Bizkaian 115 plaza dagoz gizarte bazterketa arriskuan dagozan eta buruko arazoak dituen pertsonen zuzenduta. Ganera, azaldu dauenez, Aldundiak 19 milioi euro inbertitu ditu Bilbo Zaharrean, Bilbozar egoitzan, eta 21,3 milioi euro Sestaon, beste egoitza bat eta eguneko zentro bat eregitzeko, degradazio egoera berezia daukien inguruak bizibarrizteko programak bultzatzera bideratutako 2008-2011. Plan Estrategikoaren barruan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales solicitan al Gobierno Vasco que incremente las Ayudas de Emergencia Social

En Bilbao, a 25 de septiembre de 2013.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana dos proposiciones no de norma, una del grupo Popular Vizcaíno (PP) y otra de EH Bildu, en las que se insta al Gobierno Vasco a que consigne este año las cuantías presupuestarias necesarias para responder a la demanda existente respecto a las Ayudas de Emergencia Social (AES). La propuesta de la coalición abertzale solicita además que se asegure en los presupuestos del Gobierno Vasco de 2014 una partida “suficiente” para tal fin. La iniciativa presentada por el PP ha contado con el apoyo del PSE-EE y EH Bildu, mientras que la de la coalición abertzale ha recibido el voto favorable de PSE-EE y la abstención de los populares. El grupo Nacionalistas Vascos (PNV) se ha abstenido en las dos votaciones.

Las Ayudas de Emergencia Social buscan ayudar a personas cuyos recursos resultan insuficientes para hacer frente a gastos específicos de carácter ordinario con los que evitar situaciones de exclusión social. Los 17,3 millones de euros destinados por el Ejecutivo de Lakua para este año –la misma cantidad que en 2012 debido a la prórroga presupuestaria– resultan “insuficientes” en la actual coyuntura económica. Esta situación ha provocado que muchos ayuntamientos hayan gastado ya los recursos inicialmente previstos para estas ayudas y no puedan hacer frente a nuevas solicitudes, según han denunciado en la Comisión de Acción Social los representantes de PP, EH Bildu y PSE.

El Partido Popular ha decidido mantener su iniciativa, presentada en el mes de junio, por entender que el Gobierno Vasco no ha ofrecido todavía una respuesta “clara” sobre el incremento de estas ayudas. “Hay únicamente una declaración de intenciones”, ha dicho su apoderado Eduardo Andrés. A su vez, el PSE ha lamentado que el Ejecutivo de Lakua no aceptara la propuesta de Eudel de ampliar estas ayudas, ya que “muchos ayuntamientos han agotado las partidas para todo el año”. Por su parte, EH Bildu ha pedido que el Gobierno de Gasteiz revise ese posicionamiento y ofrezca soluciones a los municipios que se han quedado sin recursos económicos para hacer frente a estas necesidades. Esta formación ha pedido incluso que si fuera necesario el Ejecutivo vasco contemple el endeudamiento, “como así lo hace para construir carreteras”, ha defendido su apoderada Amaia Agirresarobe.

El PNV ha justificado su abstención en las dos proposiciones en base a que, en la actualidad, el Gobierno Vasco no puede atender más solicitudes puesto que no hay dinero “extra” para incrementar las partidas. Jon Larrea, apoderado jeltzale, no quiere que se traslade una idea de que se “abandona a su suerte” a las personas en dificultad, ya que existen otras ayudas como la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y la Prestación complementaria de vivienda, cuyas partidas son “ampliadas al ser derecho subjetivo”, circunstancia que no ocurre con las AES. Para el grupo jeltzale lo importante es que “está garantizada una renta a las personas en riesgo” a través de estas dos ayudas, porque se tienen que atender “todas” las solicitudes que cumplan los requisitos.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONVENIO PARA FOMENTAR EL ACOGIMIENTO FAMILIAR

Por otro lado, la Comisión de Acción Social ha ratificado por unanimidad un convenio de colaboración entre la Diputación y el Gobierno Vasco para la difusión de una campaña de sensibilización y promoción del acogimiento familiar de menores entre los alumnos de 5º y 6º de Primaria. Según datos ofrecidos por la diputada de Acción Social, Pilar Ardanza, la intención es que esta campaña se una a otras iniciativas de la administración foral para conseguir 30 nuevas familias de acogida en el Territorio. Actualmente, en Bizkaia, existen 262 familias que atienden a 307 menores.

Un concurso de dibujo y relato dirigido a los alumnos de los centros educativos públicos y concertados de Bizkaia permitirá trabajar con el alumnado, “y por extensión con sus familias, la realidad del acogimiento familiar como una forma de convivencia en familia y sensibilizarlos para ayudar a niños y niñas que lo necesiten”, ha explicado la Diputada de Acción Social en la comisión.

La responsable foral ha informado también, a preguntas del grupo socialista, del programa de Emprendimiento e Innovación Social para promover la creación de nuevas empresas y el impulso de ideas innovadoras en proyectos sociales, que está dotado con 825.000 euros. A falta de cerrarse en los próximos días el plazo para presentar las ofertas, el departamento ha recibido ya 18 solicitudes, según ha confirmado Ardanza.

Por otro lado, en respuesta a cuestiones de EH Bildu, la responsable foral ha dado otros datos relacionados con programas y proyectos de su departamento en los últimos años. Así, ha informado de que la Diputación va a destinar más de un millón de euros este año en programas de integración de menores extranjeros, y que existen 115 plazas en Bizkaia destinadas a personas con problemas mentales en riesgo de exclusión social. Asimismo, ha confirmado que la Diputación ha invertido en Bilbao La Vieja 19 millones de euros en la residencia Bilbozar, y 21,3 millones de euros en Sestao para construir otra residencia y el centro de día, como impulso a la regeneración de zonas especialmente degradadas incluido en su Plan Estratégico 2008-2011.